

EKUADORKO JATORRIZKO HIZKUNTZEN AKADEMIA ANTOLATZEKO II. LAN-MINTEGIARI BURUZKO TXOSTENA

Ekudorren, 2005-II-14/17

Xabier Kintana

2004.eko abenduan Hektor Menchero jaunak, Quitoko UNESCOren ordezkariak, Euskaltzaindia bisitatu zuen, Euskararen batasun-prozesuaz interesaturik. Akademiaren idazkariarekin luzaro mintzatu ondoren, Menchero jaunak aurtengo otsailean Ekuadorren bertako amerindiar hizkuntzen Akademiaren eratzeaz eta batasunaz egiteko asmo zuten mintegira, UNESCOK finantziatura, Euskaltzaindiak ordezkari bat bidaltzea proposatu zuen. Xabier Kintanak bera hara joateko prest zegoela esan eta Zuzendaritzak aintzat hartu zuen. Horretarako, euskararen, Europako eta munduko beste hizkuntza batzuen batasunaz txosten bat prestatu zuen, eta Ekuadorko hizkuntza horien egoera eta testuingurua kontuan harturik proposamen batzuk egin zituen, Hizkuntzen Akademia antolatzeke jarraibideak barne, guztira 60 bat orrialde idatziz.

X. Kintanak otsailaren 13an Ekuadorrerako bidaia egin zuen. Quitora helztean H. Menchero eta mintegi horren antolatzaileak aireportuan zain izan zituen, hotelera eramanez. Biharamun goizean, otsailaren 14an, mintegia egiteko zen lekura abiatu ziren, Edwin Gordón Sierra, *Dirección Nacional de Educación Intercultural Bilingüe*-DINEIBeko zuzendari nazionala, Transito Chela andrea, mintegiaren koordinatzailea, Hektor Menchero UNESCOren ordezkaria, eta Xabier Kintana hizlaria, Orellana probintziako Loreto kantoira, Amazonian kokatura, Quitotik 250 kilometrotara. Harainoko bidaiak, bide gorabeheratsuak zirela eta, 8 ordu iraun zuen. Han Jose Caiza jaunak, antolakinaren koordinatzaileak ongi etorria eman zien.

Hurrengo egunean, otsailaren 15ean, Loreto udalerriko alkateordeak partaideei ongi etorria eman zien kitxuaz eta gaztelaniaz, udalaren laguntza osoa eskainiz. Ondoren Edwin Gordón jaunak mintegiaren nahiak eta helburuak azaldu zituen. Horren hurrengo, Xabier Kintanari eskaini zitzaion hitza. Beronek Euskaltzaindiaren agurra eta Jose Juan Ibarretxe lehendakariaren elkartasun-hitzak adierazi zituzkien guztiei, euskaldun moduan bertan, laguntzeko as-

moz, egotea ohi ez bezalako ohorea zuela esanez. Hektor Menchero jaunak, euskalduna berau ere, UNESCOren izenean ekitaldiaren esangura eta xedeak azpimarratu zituen,

Azkenik, Transito Chela andreak, mintegiaren koordinatzaile gisa, bilduei hitz batzuk esan zizkien, hara etorririko guztiei eskerrak emanaz eta lan egiteko prozedura azalduz. Atarikoon ondoren, bertara bildu ziren 11 nazionalitate indigenen partaideek, guztiak irakaskuntza arlokoak, beren burua aurkeztu zuten, nor bere hizkuntzan agurra eginez. Heldurikoak 30 pertsona izan ziren, andrazkoak eta gizonezkoak, guztiak irakaskuntza-arlokoak, honako amerindiar nazioetako ordezkari: andoa, kofan (650 hiztun), txatxi (10.000 hiztun), epera (30.000 hiztun), kitxua (3.050.0000 hiztun), sapara (50 hiztun), xuar (80.000 hiztun), xiwiar (1000 hiztun), tagaeri (500 hiztun), tsatxila (2.000 hiztun) eta waoraniak (2.000 hiztun). Gomitatuak izan arren, era bateko edo besteko arrazoiengatik, ez zuten etortzerik izan atxuar (500 hiztun), awa (3.500 hiztun), sekoia-siona (150 hiztun) nazionalitateetako ordezkariak.

Hizlarien artean, lehenik Bernardo Chango jauna mintzatu zen, Kitxuarren Akademiaren Burua, hizkuntzen akademien osakeraz eta antolaketaz iradokizun batzuk eskaintzeko.

Luis Montaluisak, ekuadortar hizkuntzalari ospetsuak, Ekuadorko jatorrizko mintzairekin eraman den hizkuntz politika azaldu zuen, eta xehetasun handiz, hizkuntzen batasun bidean orain arte lorturiko adostasun nabarmenak azpimarratu zituen, bakoitzarentzako alfabeto gomendagarrienak aipatuz. Era berean, oraindik zenbatzeko sistema erabat garaturik ez daukaten mintzairen kasua seinalatu eta hori konpontzeko irtenbide zuhur batzuk proposatu zituen. Azkenik, hizkuntzak babesteko, amerindiar izaera bera defenditu beharra nabarmendu zuen, europozentristatik jasoriko aurreiritzi kultural eta erlijioso kolonialak baztertuz. Haurrentzako materialei dagokienez, folkloerkeriatik irten eta beharrezkoak jo zituen liburu atsegin eta erakargarriak, bertan gaurko bizimodu moderno, eroso eta egokia islatzeko.

Xabier Kintanak mundu zabaleko hizkuntzen artean historian zehar izandako batasun-eredu batzuk azaldu zituen (greziera, italiara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, alemana, errusiera, arabiera, katalana, indonesiera, euskara...) kasu bakoitzean eragindako faktore linguistiko, soziologiko, erlijioso, politiko, demografiko, merkataritzakoak etab. azpimarratuz. Ondoren, Hizkuntzaren Akademia baten ohiko egitekoak eta bera osatzeko moduaz mintzatu zen, Ekuadorren kasuan, taldeen arteko ezberdintasun nabariak ikusita, bertako hizkuntza guztientzako Akademia bakarra egitea proposatuz, hartan hizkuntza bakoitzak bere atal berezia izan arren. Proposamena oso begi onez hartu zuten DINEIB-eko antolatzaileak.

Hizkuntzen batasuna dela eta, eredu batzuk erakutsi zizkien, grafian, morfologian, deklinabidean, aditz sisteman etabar bere usteko jarraibiderik egokienak proposatuz. Luis Montaluisa irakaslea harekin guztiz bat etorri zen, eta

argudio gehiagorekin Kintanaren bideari eutsi zion. Azkenik, Xabierrek hizkuntzen aldeko eta hiztunen prestigioa bultzatzeko ekintza batzuk gomendatu zizkien. Hau guztiau hara eramandako txostenean ageri zen, partaideen artean banatuan. Azpimarratzekoa da, hizlariak, kitxuazko etsenpluez gainera, jarri-riko euskal adibideak ere biziki ongi konprenitzen zituztela indiarrek, eta maiz irribarre egiten zutela, nork bere hizkuntzan egitura, joskera eta kidetasun berberak aurkitzen zituztelako, haien mintzaira guztiak, euskara bera bezala, eranskariak izanik. Azkenik Euskaltzainditik eta Euskal Herritik eramandako euskal argitalpen, egunkari eta liburu-sorta ederra eskaini zuen, Hizkuntzen Akademiarako opari gisa.

Otsailaren 16an lan egiteko bi talde egin ziren. Bata hizkuntzalariekin, X. Kintanaren zuzendaritzapean, eta bestea hezitzaileekin, Hektor Mencheroren gidaritzapean. Talde biek toki banatan jardun zuten, zeinek bere arloa jorrazten., fonologia, lexikografia, dialektologia, deklinabidea, aditz sistema, sintaxia, batean, eta hezkuntza elebidunari dagozkionak bestean: testuinguru sozialarekiko harremanak, materialak, irakasleen gaitasuna eta prestakuntza, edukien mailaketa, etab.

Azken egunean, otsailak 17, goizean talde biak elkartu eta lorturiko ondorioak elkarri azaldu zizkieten, txostenak egiteko. Indiar askok Euskal Herrian euskara pertsona helduei irakasteko metodologia ezagutzeko interesa erakutsi zuten, bai eta haurren hezkuntzan erabiltzen diren liburu eta materialez ere.

Arratsaldean Loreto kantoiko alkatea Fernando Andrade jauna mintegiaren amaierara etorri zen. Partaide guztiak gaztelaniaz eta kitxuaz agurtu eta abegikortasun handiz, ekitaldi denborako bazkari guztiak udalaren kontura jartzeaz gainera, bertako dantza eta inguru hartako folklore eta ohituren erakusgarri, dantza bat ikustera gomitatu zituen guztiak, bertako neska gazte batek –bi aldiz Amazoniako erregina izendatuak– interpretatua. Ondoren bi xaman (yachaq) edo herri-sendagileen kezko garbiketa zeremonia ikusi eta esperimentatzeko parada izan zuten. Handik alde egin baino lehen, elkarri beren helbideak eta banatu ziren, harremanetan segitzeko.